

Zainak: azal grafikoak.

Aldizkaria aberasten duen ekimen artistikoa

Amaia Lekerikabeasko Gaztañaga
Isusko Vivas Ziarrusta

1980ko hamarkadaren hastapenean, Eusko Ikaskuntzak Gerra Zibilaren ondoren etendako jarduera berpiztu zuenean, eta aldizkari berri bakoitzak argitaratzen zuen zenbakien artxiboaren arabera, *Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía* 'Koadernoak' 1982an berrekin zion bere jarduerari. Ordutik gure egunetara, izen aldaketaz gain: *zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 14. zenbakiarekin sendotzen dena (1997), aldizkaria bere osaera eta alderdi estetikoak *ad hoc* egindako aldaketen bidez egokituz joan da, eta eraldaketa horiek oinarritzko zein funtsezko nortasuna gorde nahi izan dute, batez ere koloreetan eta erreferentzia esplizituetan. Aldi berean, argitalpen-grafikoaren esparruan ezarri diren berrikuntzak hartzen zituen bere gain, tipografia eta ikusizko estandarrak aplikatuz.

Ilido horretan, eta dagokigun gaia ardazteko, 2000ko hamarkadaren hasiera aldera, argitaratzen ziren zenbaki monografikoetako batzuek gaiarekin bat egiten zuten azalak zituzten (aurrekoa eta atzekoa), eta irudi bat eransten zuten, argazkia edo foto-muntaia. Egitasmo horrek adierazten baitzuen aurrerapen nabarmena egin zela liburuki horiek nolabait "pertsonalizatzeko", monografia legez, gizarteko afera kulturalak eta antropologikoak lantzen zituztenak, hirietako (kulturen), itsastar gizarteen, erlijiosotasun herrikoia eta jaien azterketara bideratzen zihozenak. Inprimatutako edizioan gainazal bat zegoen, *couché* paperezko estalkia bailitzan funtzionatzen zuena, tolestuta eta moldiztegiko tiradari erantsita.

Hala ere, eta Eusko Ikaskuntzako sail zientifiko bakoitzeko aldizkariaren artean identifikazio eta bateratze-premiei zegokienez doikuntza frogagarriagoa aurreikusiz, 'Koadernoak' identifikatzeko artikulazio-asmu argiarekin, monografiko bakoitzaren azalak bektore-motako marrazki eskematikoaren arabera trazatzen hasi ziren. Marrazki horiek ez zituzten soilik kontserbatzen, baizik eta aldizkari bakoitzaren koloreak goraipatzen zituzten, eta, hala, aldizkari bakoitzaren zenbakiei zegozkien ikergaiak sinbolikoki nahiz ikono eran osatzen zituzten. Hortik abiatuta, 28. zenbakia (erlijiosotasun moduei buruzkoa), 29a (itsas kultura eta gizarteei zegokiena), 30a (elikaduraren erabilera eta ohiturak barnebiltzen zituena) eta 31-32 (hiri globalak eta tokiko kulturak) bezalako zenbakiak, azal horiekin diseinatu eta plazaratu ziren.

Bide horretan jarraitu zuen, harik eta 2012. urtean *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía* aldizkariaren bilakaera historikoan beste bidegurutze garrantzitsu bat gertatu zen arte. Argitalpenaren internet sarerako sarrera eta birmoldaketa digitala izan zena, alegia. Urte horretako 35. zenbakiak izaera miszelaneoa zuen, eta hortaz, ez zitzaion azal espezifikorik atxiki. Aldizkariak sarean bere nortasun korporatiboa berretsi bazuen ere, azal generiko bat maketatu zen, etorkizunean ere batean zein bestean erraztasunez erreproduzitu zitekeena.

39. zenbaki honen edizioarekin, argitalpen-prozesuaren kalitateari, indexazioari eta abarri dagokienez aldizkariaren egiten ari diren hobekuntzen eta txertaketen bidetik, artista, diseinatzaile eta sortzaileen laguntza izateko aukera dagoela egiaztatu da; dena delako diziplinako edo sormen-eremuko obra zein lan-material baten irudi digitala eskatuz, aldizkariaren azal bakoitza konfiguratu ahal izateko, nolana ere.

ZAINAK: AZAL GRAFIKOAK ATALA

Aldizkaria estetikoki hobetzea, zenbaki bakoitzerako pentsaturiko azal bereziekin, elkarlanerako eta egiturazko konplexutasunari dagokionez erronka dela uste dugu. Prozesu baten garapenaren irudia zein obra bukatua izan, zenbaki bakoitzean kolaboratzaileak hautatzeko, hasiera batean bederen, parte hartzeko gonbidapena egingo da, zenbaki horren azalerako proposatutako irudia lagatzeko akordio baten bidez, OJS *Creative Commons* lizentziaren baldintzapean; horixe baita aldizkaria argitaratzeko eta zabaltzeko egungo modalitatea. Ordainetan, argi eta zehatz adieraziko da aldizkariaren kreditu-tituluetan azal

bakoitzaren egiletza (aurreko azala zein atzekoa, baldin baleude), eta espazio bat erreserbatuko da *Zainak*: azal grafikoak Atal honetan, aukeraturiko irudiari buruz egokitzen diren xehetasun guztiak ezagutarazteko, fitxa teknikoaz gain, argazki-hartze orokorrak edo zehatzak izan daitezkeenak, eraikuntza-fasean dauden artelanak edo materialei buruzko infografia-prozedurak, euskarri desberdinetan inprimaturiko grabatuak, bideo-zatiak edota monitoretik lortutako eszenak zilegi izango dira... soilik imajinazioaren jomugaz.

Ez da beharrezkoa 'a priori' abiapuntuko irudiaren formatu konkreturik, zeren eta hori ezarriko da, hala badagokio, planteamendua egokitu behar denean azalera erabilgarriaren hedadurara; azalera hori 17.5 cm x 15.5 cm izango da (neurri bera atzeko azalean, halakorik badago). Irudia fitxategi maneigarri batean aurkeztea ezinbestekoa da (ahal dela, JPEG, TIFF, Photoshop programak ezagutu dezakeen PDF formatuan), hazbeteko 300 puntuko bereizmen optimoarekin, eta azalaren txantilo estandarizatuaren gainean muntatuko da. Aipatutako irudikoadroak pantailako pixelaren nolakotasuna hondatzea saihestuko du. Motiboa librea bada ere, eta irudikapen-sorkuntzak nahiz irudikapenezkoak ez direnak onartzen badira ere, figuratiboa eta abstraktua aukera guztiz aske eta baliozkoak izanik, zenbaki monografikoak prestatzen direnean, posible baldin bada, azalen irudia testuinguruko elementuren batekin denotatiboki edo konnotatiboki lotzea bideragarri egingo da. Nahiz eta obra edota prozesua bera aurretik ezagutu eta erakuts daitezkeen, azalerako jarritako irudia argitaragabea izatea eskertuko da.


Zainak: azal grafikoak Atala egileen testu-erreferentzia batekin osatuko da, eta bertan, grafikoki eskainitako kontzeptuaren jatorria eta ideiak edo, besterik gabe, bereizmen plastikoa azalduko dira. Atal honek arte plastikoen eta parekideak izan daitezkeen diziplinazko testuinguruaren sorkuntza azpimarratzen du, eta aldizkariaren 38. zenbakiarekin sortu zen beste Atal berri baten biderei jarraitzen dio: testigantzak eta izaera etnografikodun biografiak; horren bidez, ikerketa-artikuluen funtsezko garrantzia kaltetu gabe, ez zeharka, paraleloki baizik, aldizkariaren nortasun-zeinuak ezartzen dituzten gidalerroak ireki nahi dira. Atalaren arduradun editoreak Amaia Lekerikabeasko eta Isusko Vivas izango dira; eurek ere azalaren muntaketa eta orientazioa koordinatzen lagunduko dute. Behin betiko bertsioa bi aldeak ados jarrita erkatu eta berrikusiko dute, plataforman sartu aurretik.

ZENBAKI HONETARAKO AZAL GRAFIKOEN PROPOSAMENA. ZAINAK 39 (2021)

Gaur egun, Atala abian jartzen den lehen une honetan, ekimen honen abiapuntu bezala argitaratutako zenbakiak duen azala Amaia Lekerikabeasko eta Isusko Vivas artista eta irakasleek elaboratu eta moldatu dute. Jatorrizko irudia *collage* materikoa da, bi dimentsioko planoak ditu erliebean eta tamaina aldakorrean, hau da; ohiko ertz angeluzuzenetik aldentzen da. Lan abstraktu hau kartoi gainean kolatutako materialez, kartoi mehe estanpatuz edo bere kolore naturalez eta ehundura nabarmeneko paperez osatuta dago. Arrabolaz eta kolore laranja partzialki tindatutako plano bat, plastiko gardenez babestutako eta inprimatutako beira-zuntzezko txatal bat erabiliz lortutako arrastoa beltzean duen marrazki bati gainjartzen zaio. Lehorrean gofrotua duen paper-pusketa bat, laranja-koloredun lerro-zirriborroekin eta torkuloz prentsaturako beira-zuntzezko hariekin konbinatuta. Amaitzeko, plastiko lodi erdi-gardenezko beste erremate diagonal batek konposizio osoaren inklinazioa eragiten du. Bukaerako irudia jatorrizko euskarritik zuzenean eskaneatuz lortzen da, pixka bat eta oso arinki manipulatu diren neurrien gutxieneko aldaketarekin (altuera/ zabalera), ezarritako dimentsioetara egokitzeko.

Ekarpen hau obra bakar eta originala da, ez baita erreproduzio seriatuaren emaitza izan. 2021ean egina, Bilboko Solokoetxe auzoko LA TALLER Grabatu Tailer eta Galerian. LA TALLER espazioan sortzen diren jardueretan, estanpazio eta inprimaketa-teknologiak hainbat modalitatetan eguneratzen dira, antzinatek teknika grafikoetan erabili izan diren prozeduren segidaz. Etengabe entseatzeko esperimendazio-bideak, eta horiek ikusgarri egiten dituzten artistentzat erreproduzitutako tiradetan (horietako asko nazioartean aktiboak), beroriek izanik zerbitzu horiek kontratatzen dituztenak, bai eta Maite Martínez de Arenaza zuzendariak grabatua irakasten, transmititzen eta zabaltzen egiten duen lan neke-gabean ere. 2016an *Gure Artea* saria eman zioten, kudeaketa artistiko eta kulturean gaitasun handia duten erakundeei Eusko Jaurlaritzak esleitzen diena. Arte grafikoetan egiten den lan eskerga LA TALLER zentroak aldi-aldi antolatzen dituen erakusketa artistiko nazional eta nazioartekoekin kateatzen da. Erakusketa horiek erregularitasunez antolatzen ditu LA TALLER-ek, eta gelditu barik sustatzen ditu ia hamarkada bat baino gehiago iraun duen lekuan bertan, Bilboko Solokoetxe inguruan.

Zainak aldizkariaren 39. ale honetan, hain zuzen ere, inprimaketa-teknologiak eta produkzio-prozesu anitz aberatsak kazetaritzarekin eta artearekin lotzen dituen LA TALLER-ekin lotutako gune sorberriari buruzko artikulua ere badago: *Erredakzioa* proiektua, 2017ko maiatzean jaioa.



1. Azalen kokapenaren adibidea

